

0 – 1 URTEKO BEKAK

Eusko Jaurlaritzak 0-2 urte bitarteko seme-alaben familientzako bekak jarri du martxan 2021-2022 ikasturterako.

Beka eskuratzeko familiek 2020. urtean familia-errentan, gehienez, jarraian agertzen diren diru sarrerak izan beharko dute:

0 eta 1 urteko ikasleak	
Gehienezko subentzioa	90 euro/hilean

Familiako unitateko kideak	2020 urteko errenta mugak
1	8.871 euro
2	13.306 euro
3	17.742 euro
4	22.177 euro
5	25.726 euro
6	29.274 euro
7	32.822 euro
8	36.371 euro

Familiaren unitatearen errenta-maila finkatzeko, 2020 urteko sarrera garbiak hartuko dira kontuan. Horretarako, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren likidazioaren kuota likidoa zerga-oinarri orokorrari kendu beharko zaio. Informazio guztia hemen duzue:

<http://www.euskadi.eus/eusko-jaurlaritza/hezkuntza-saila/>

Zuen iritziz, 2020an izandako diru sarrerak goiko taulan agertutakoak baino txikiagoak badira eta beka eskatu nahi baduzue, honako helbidera eta ordutegian etorri behar duzue eskaera egiteko:

Lezoko ikastola	Olatzar bidea, 1	Irailaren 13tik 17ra 10:30etik 12:30era
Antxoko ikastola	Eskalantegi, 66	Irailaren 13tik 17ra 15:00etatik 17:30era
Lizeoko eraikin nagusia	Larrabide bidea, 5 Pasai Donibane	Irailaren 20tik 24ra 10:00etatik 13:00etara

ZUZENDARITZA